



Mungialdeko Mankomunitateak bat egingo du Jagolearen Munduko Egunarekin, emakumeek zainketetan duten paperari buruzko hitzaldi batekin

- Azaroaren 8an izango da, Agirre Jauregian, 16:00etatik 18:00etara.

-Jardunaldia Gizarte Zerbitzuen Mungialdeko Mankomunitateak sustatu du Jagoten Programaren bitartez.

Mungia, 2023ko azaroaren 2an. Mungialdeak bat egingo du Jagolearen Munguko Egunarekin (azaroak 5), "Emakumeen zeregina jagote-lanetan" izeneko jardunaldiarekin. Jardunaldi horrek balioa emango dio emakumeek arlo horretan egiten duten lanari, eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak eta adinekoak zaintzean dauden genero-desberdintasunei buruzko datu batzuk emango dira. Azaroaren 8an izango da, Agirre Jauregian, 16:00etatik 18:00etara.

Mungialde Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak sustatuta, Jagoten Programaren bidez, hitzaldia zaintzaile ez-profesionalentzat eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen senideentzat eta udalerrri mankomunatueta harritar guztientzat da.

Edukiera mugatua denez, aldeztatik 637 06 80 74 telefonoan izena ematea eskatzen da.

Jagoten Programa

Jagoten programak mendekotasuna duen pertsonaren autonomia pertsonala eta zaintzaileentzako laguntza psikosoziala sustatu nahi ditu. 2023an zehar, Mungialdeko Mankomunitateak Jagoten bidez, psikoestimulazio tailerra, parte-hartzaileen arteko interakzioa sustatzeko ibilaldi terapeutikoak, esperientziak partekatzeko laguntza psikologikoko tailer bat eta zaintzaileei eta Mungialdeko Mankomunitateko udalerrietan bizi diren pertsona guztiei zuzendutako hainbat hitzaldi jarri ditu martxan. Guztira, 60 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte. Gainera, Jagoten Programak arreta psikologiko indibiduala eskaintzen du etengabe.